





Biologia

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2013ko UZTAILA

BIOLOGIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2013

BIOLOGÍA

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Oro har, galdera guztietarako, ikasleak galdetzen zaionari bakarrik erantzun beharko dio. Erantzunen zehaztasuna eta laburtasuna sarituko da, eta, hala dagokionean, azalpen-eskemak erabiltzea ere bai. Gainera, alderdi hauek kontuan hartuko dira:

1. Proposatutako azterketaren bi aukeretako bati dagozkion galderei bakarrik erantzun beharko die ikasleak, hau da, A aukerari dagozkion bost galderei edo B aukerari dagozkion bost galderei.
2. Aukera desberdinei dagozkien erantzunak ez dira inola ere onartuko.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

De forma general, y para todas las preguntas, será suficiente con que el estudiante responda estrictamente a lo que se pregunta. Se valorará positivamente la brevedad y precisión de las respuestas así como, en su caso, la realización de esquemas explicativos. Además se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:

1. El estudiante deberá contestar únicamente las cuestiones relativas a una de las opciones del examen propuesto, es decir las cinco cuestiones de la opción A ó las cinco cuestiones de la opción B.
2. En ningún caso serán admitidas respuestas pertenecientes a distintas opciones.

A AUKERA

1A. GALDERA

Prentsan argitaratutako berrien arabera, Espainiak munduko lidergoari eusten dio organo-transplanteei dagokienez, Espainian egin baitziren Europar Batasunean erregistratutako organo-emate guztien % 17,3.

Organo-transplanteei dagokienez:

- (1 puntu)** Zer dela eta errefusatzen du organismo batek beste banako batetik transplantatutako organo osasuntsu bat? Nola egiten zaie aurre errefusei praktika klinikoan? Arrazoitu erantzunak.
- (1 puntu)** Biki unibitelinoen kasuan, zer emaille mota litzateke bat beste senidearentzat? Eta unibitelinoak ez diren anai-arrebak? Arrazoitu erantzunak.

2A GALDERA


Genetikoki eraldatutako organismoak:

- (1 puntu)** Defini itzazu kontzeptu hauek: ingeniaritza genetikoa, zelula ostalaria, klonazioa eta murrizte-entzima.
- (0,5 puntu)** Azaldu ezazu, labur, zer den "DNA birkonbinatua" eta zertarako erabil daitekeen. Arrazoitu erantzuna.
- (0,5 puntu)** Azaldu ezazu, labur, zer desberdintasun geniko dauden arto transgeniko baten eta transgenikoa ez den beste baten artean. Arrazoitu erantzuna.

3A GALDERA

Irudian, zelulan gertatzen diren zenbait erreakzio metabolikoren eskema irudikatu da.

- (0,5 puntu)** Identifika eta izenda ezazu **A** eta **B** letrei dagokien ibilbide metabolikoa. Arrazoitu erantzunak.
- (0,5 puntu)** Esleitu 1etik 6rako zenbakiak metabolito hauei: H_2O , CO_2 , O_2 , $ADP+P_i$, NAD^+ eta ATP.
- (0,5 puntu)** Adierazi zelularen zer organulu eta tokitan gertatzen diren **A** eta **B** ibilbideetako erreakzioak. Arrazoitu erantzunak.
- (0,5 puntu)** Adierazi ea honelako erreakzio metabolikoak gerta daitezkeen ala ez landare-zelula batean. Arrazoitu erantzuna.





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2013ko UZTAILA

BIOLOGIA





PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2013

BIOLOGÍA

4A. GALDERA

Biomolekula organikoen egitura eta loturak:



- (0,75)** Identifika ezazu egitura horietako bakoitza. Adieraz ezazu zer talde funtzional duen, edo dituen, biomolekula horietako bakoitzak.
- (0,5 puntu)** Adieraz ezazu zer lotura gertatzen diren bi monosakaridoren artean, edo bi aminoazidoren artean, eta zer izen duten ondoriozko produktuek. Arrazoitu erantzunak.
- (0,75 puntu)** Adieraz ezazu zer biomolekula konplexuagok dauzkaten beren egituran (A) puntukoaren moduko biomolekula bakunak, eta zer funtzio betetzen dituzten zelulan.

5A GALDERA

Mikroorganismoen aplikazioak bioteknologian:

- (0,5 puntu)** Adieraz ezazu zer puntu komun duten, prozesu biokimikoari dagokionez, jogurtaren eta gaztanberaren ekoizpenek. Arrazoitu erantzuna.
- (1 puntu)** Zer biomolekula erabiltzen d(ir)a prozesu horietan abiapuntuko material gisa, eta zer produktu bilakatzen d(ir)a? Eman ezazu parte hartzen duten mikroorganismoen adibide bat. Mikroorganismo horiek zer dira: aerobioak ala anaerobioak? Arrazoitu erantzunak.
- (0,5 puntu)** Erabil litezke mikroorganismo horiek ardoa ozpin bilakarazteko? Arrazoitu erantzuna.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2013ko UZTAILA

BIOLOGIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2013

BIOLOGÍA

B AUKERA

1B. GALDERA


Hedabideek alarma piztu dute gizartean, berriki zaldien DNA agertu baita hanburgesian eta beste elikagai batzuetan, nahiz eta etiketan behikia dela adierazi.

- (0,5 puntu)** Adieraz ezazu, marrazkiak erabiliz, nolakoak diren DNAREN egitura primarioa (edo sekuentzia) eta egitura sekundarioa.
- (0,5 puntu)** Adieraz ezazu zer den nukleosido bat eta nukleotido bat, eta zer molekulaz osatuta dauden. Adieraz ezazu zer lotura mota ezartzen diren nukleotido bat osatzen duten molekulen artean.
- (1 puntu)** Bizidun guztien DNA nukleotido berek osatuta badago, nola bereizten da, orduan, zaldien DNA behien DNAtik? Arrazoituz erantzuna.

2B. GALDERA

Zelula-zatiketa:

- (0,5 puntu)** Adieraz ezazu zer izen duen A-D irudietan erakusten den prozesuak. Adieraz ezazu zein diren prozesuaren faseak, eta identifika ezazu fase bakoitza irudietako bakoitzarekin. Ondo ordenatuta daude faseak irudiekin? Hala ez bada, adieraz ezazu zein den ordena zuzena.



- (1 puntu)** Deskriba itzazu, labur, **C** irudian gertatzen ari diren lau gertaera.
- (0,5 puntu)** Zer da, animalia-zelula ala landare-zelula? Arrazoituz erantzuna.

3B. GALDERA

Ile kizkurreko eta belarri motzeko txakur ar bat ile kizkurreko eta belarri normaleko txakur eme batekin gurutzatu da. Bi txakurkume izan dituzte: ile kizkurreko eta belarri motzeko bat, eta ile leuneko eta belarri normaleko bat. Jakinik ile kizkurra eta belarri motzak karaktere gainartzaile direla, erantzun galdera hauei:

- (0,5 puntu)** Zein litzateke gurasoen genotipoa?
- (0,5 puntu)** Zein litzateke kumeen genotipoa? Adieraz itzazu aukera guztiak.
- (1 puntu)** Txakur bikote horrek hirugarren kume bat izango balu, gerta liteke ile kizkurreko eta belarri normalekoa izatea? Arrazoituz erantzuna.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2013ko UZTAILA

BIOLOGIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2013

BIOLOGÍA

4B. GALDERA

Mikroorganismoak eta gaixotasun infekziosoak:

- a) **(0,5 puntu)** Azaldu ezazu "mikrobio-infekzio" terminoa, eta adieraz ezazu zer izen ematen zaien gaixotasunak eragiten dituzten mikroorganismoei.
- b) **(1 puntu)** Aipa itzazu gaixotasun infekziosoak transmititzeko lau bide, eta eman ezazu bakoitzaren adibideren bat. Adieraz ezazu bakterioek, onddoek eta birusek eragindako gaixotasun infekziosoren bat, eta azaldu ezazu zer egiten den haien aurka borrokatzeko. Arrazoitu erantzuna.
- c) **(0,5 puntu)** Azaldu ezazu, labur, zer desberdintasun dauden "epidemia"ren eta "pandemia"ren artean.

5B GALDERA

Immunitatea eta erantzun immunitarioa:

- a) **(0,5 puntu)** Defini itzazu antigeno eta antigorputz kontzeptuak, eta adieraz ezazu zer desberdintasun dauden haien izaera kimikoei dagokienez. Arrazoitu erantzuna.
- b) **(0,5 puntu)** Adieraz ezazu zer odol-zelula mota diren gai antigenoak ezagutzeko, eta ea parte hartzen duten humore- edo zelula-erantzun immunitarioan. Arrazoitu erantzuna.
- c) **(1 puntu)** Marraztu ezazu IgG baten egitura, eta adieraz ezazu molekularen zer eskualdetan ezagutzen diren antigenoak. Zer zelula motak ekoizten ditu IgG horiek?



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

BIOLOGIA

Orokorrean eta galdera guztietarako, ikasleak erantzun beharko dio bakarrik galdetu egiten zaionari. Erantzunen zehaztasuna eta laburtasuna modu positiboan baloratuko da eta hala balegokio, erabilitako azalpen-eskemak. Gainera, ondoko aspektuak kontuan hartuko dira:

1. Ikasleak proposatutako azterketaren aukera bati dagokion galderei bakarrik erantzun beharko die, hau da, A aukerari dagozkion bost galdekizunak edo B aukerari dagozkion bost galdekizunak.
2. Inondik inora ez dira onartuko aipatutako aukera ezberdinei dagozkien erantzunak.
3. Bost galdekizunen bakoitzak bi atal edo gehiago izan ditzake.
4. Galdekizun bakoitza era independentean ebaluatuko da eta zerotik bi puntura kalifikatuko da. Dauzkan atal guztiak puntuatuko dira derrigorrez, horrela, bakoitza, indibidualki, aipatutako puntuazio handienarekin puntuatuko da.
5. Azterketaren azken kalifikazioa bost galdekizunetan lortutako kalifikazioen guztien kopurua izango da.
6. Erantzunen edukia, baita adierazteko modua ere, formulatutako testuari zehatz-mehatz lotuko zaio. Honexegatik, biologi hizkuntzaren erabilera zuzena, erantzun argiak eta zehatzak eta azterketaren aurkezpen argia eta garbia positiboki baloratuko dira.
7. Grafiko eta azalpen argiak baita ortografia eta espresioa zuzena ere positiboki balora daitezke.
8. Erantzun argudiatua eskatzen den galdekizunetan, ongi argudiatuta dagoen erantzuna bakarrik hartuko da kontuan zuzena dena.
9. Irudiak edo/eta egiturak identifikatzeko eskatzen diren galdekizunetan, identifikatzeko eskatzen diren izenak derrigorrez aipatu behar dira. Grafikoetan azaltzen diren izenak agertutako argitalpenetatik datoz; beraz, beste adiera batzuk zuzenak izango dira, baldin eta justifikatuak eta zuzenak badira.
10. Grafiko bat edo eskema bat eskatzen den galdekizunetan, horren argitasuna baloratuko da.
11. Emandako erantzunak baloratzeko eta zuzentzeko ebaluatzaileak Biologia testu liburuetan agertzen den edukia, irakasgai honetarako erabilitako ohiko tresna dena, kontuan hartuko du.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

A AUKERA

1A GALDERA

Jakitea zer den organo-transplantea eta zer arazo immunologiko eragiten dizkion hartzaileari. Emaille motak bereizten jakitea.

2A GALDERA

Biologia molekularren oinarriko kontzeptuak ezagutzea, eta jakitea nola erabil daitezkeen kontzeptu horiek organismo transgenikoak lortzeko.

3A GALDERA

Ibilbide metabolikoen zelula barneko kokalekua eta parte hartzen duten metabolito nagusiak identifikatzea. Ibilbide horiek animalia- eta landare-zeluletan berak diren ala ez jakitea.

4A GALDERA

Biomolekulen egitura eta biomolekulen talde funtzionalak ezagutzea. Lotura glikosidikoa eta peptidikoa bereiztea. Jakitea nolakoa den proteinen egitura eta zer funtzio betetzen dituzten zelulan.

5A GALDERA

Jakitea nola erabiltzen diren mikroorganismoak esnekiak egiteko eta zer ibilbide biokimikok parte hartzen duten. Arnasketa eta hartzidura bereizten jakitea, eta mikroorganismo aerobio eta anaerobioekin lotzea.

B AUKERA

1B GALDERA

Jakitea nolakoa den DNAren egitura, zer molekulak osatzen duten eta zer lotura mota dauden molekulen artean. Jakitea zer alde dagoen espezies desberdinetako DNAren artean.

2B GALDERA

Zelula-zatiketa aldian ezagutzea eta identifikatzea. Zatiketa parte hartzen duten elementuen egitura eta funtzioa ezagutzea eta zatiketa-faseen ordena kronologikoa ezagutzea. Zatiketa animalia-zelula bati ala landare-zelula bati dagokion bereizten jakitea.

3B GALDERA

Alelo gainartzailearen eta azpirakorraren esanahia ezagutzea. Genetika mendeldarraren problema errazak ebaztea.

4B GALDERA

Jakitea zer den gaixotasun infekzioso bat eta zer mikroorganismok eragiten dituzten. Gaixotasun infekziosoen transmisio-bideak ezagutzea, eta epidemiaren eta pandemiaren artean bereizten jakitea.

5B GALDERA

Jakitea zer den erantzun immunitarioa eta zein diren antigenoen eta antigorputzen egiturak. Zelula-immunitatea eta humore-immunitatea bereizten jakitea. Immunoglobulina baten egitura kimikoa ezagutzea, eta antigenoa ezagutzen den tokia identifikatzea.